

# TOLOSAKO HAURREN KONTSEILUA DISEINATZEKO ETA GARATZEKO ZERBITZUAREN MEMORIA

2019-2020 IKASTURTEA



## Tolosako Haurren Kontseilua diseinatzeko eta garatzeko zerbitzuaren memoria

1. Sarrera .....	3
2. Hartzaileak .....	4
3. Zerbitzuaren helburuak .....	5
4. Zerbitzuaren garapena .....	6
4.1. Haurren Kontseiluaren saioak .....	6
Lehen saioa .....	7
Bigarren saioa .....	26
Hirugarren saioa .....	62
Laugarren saioa .....	66
4.2. Ikasturte amaierako aurkezpena familientzat .....	87
4.3. Mintza txokoa .....	87
<b>Eranskinak .....</b>	<b>88</b>
• <b>I eranskina: Haurren Kontseiluaren saioak</b>	
○ Lehen saioa	
○ Bigarren saioa	
○ Hirugarren saioa	
○ Laugarren saioa	
• <b>II eranskina: Familiei zuzendutako baliabideak</b>	
○ Ikasturte hasierako aurkezpena	
○ Ikasturte hasierako gutunak	
• <b>III eranskina: Komunikazioa</b>	
○ Barne komunikazioa	
○ Kanpo komunikazioa	
• <b>IV eranskina: COVID19ak eragindako egokitzapena</b>	
○ COVID19ak eragindako egokitzapena	
○ Harremanetarako gmail kontua	
○ Mintza Txokorako bideoaren gidoia	

## 1. Sarrera

“**Tolosako Haurren Kontseilua**” egitasmoaren bidez, Tolosan bizi diren 8-12 urte bitarteko haurrei hitz egiteko aukera ematen zaie, honako helburuarekin: **haurren ikuspegitik herria nola bizi duten jakitea**. Horretarako, “**Haurren Hiria**” nazioarteko proiektua oinarritzat hartu da Francesco Tonucciren esperientzia abiapuntutzat hartuta.

Francesco Tonuccik sortu eta gidaturiko “**Haurren Hiria**” nazioarteko proiektua haurren parte hartzeari buruzko mundu osoko erreferenteetako bat da, eta haurrak parametro gisa jarritz gizartea eraldatzeko prozesu komunitarioak aldarrikatzen eta ahalbidetzen ditu.

## Haurren Tolosa

*“Haurren neurrirako herriak denen neurrirako herriak dira”*



Egitasmo honen atzean hainbat profesional daude (hezitzaileak, gizarte langileak, irakasleak, osasun langileak, partaidetzako teknikariak, arkitektoak...), herriko gune eta egituren eraldaketa horretan laguntzeko, harreman modu berriei bide emateko (konfiantza, elkarrenganako babesa, interdependentzia, erantzukidetasuna...), eta lotura komunitarioa ezartzeko.

Araziko lantaldean heziketa lantzen dugu bokazioz, eta bide luzea egin dugu hezitzaile gisa ingurumena, kultura eta aisialdiarekin loturiko jarduera anitzak eskainiz.

**ARAZIren nortasunean heziketa irmoki txertatuta dago**, hartatik sortu ginen eta hari esker marraztuko dugu etorkizuna. Izan ere, kalitatezko hezkuntza-proiektuak garatuz ideiak borobiltzen ditugu.

### NEURRIRA EGOKITUTA...

Ez dago eskaintza onik hartzailearentzako egokia ez bada. Horregatik kasuan kasuko neurrira sortu eta garatzen ditugu proiektuak, hartzailearen ezaugarri eta beharretara egokituz.

### TOKIAN TOKIKOAK...

Molde unibertsaletatik ihes egin eta tokikotasunean oinarrituriko proiektuak garatzen ditugu, herri edo eremu bakoitzaren ezaugarriak islatuz eta haiei erantzunez.

### HASIERATIK AMAITU ARTE, ELKARREKIN...

Ez ditugu proiektuak ematen, partekatzen ditugu. Hala, garatzen diren bitartean, etenik gabeko laguntza eskaintzen duen bidaidea gara. Horrenbestez, proiektua hasten denetik eta guztiz amaitu arte, elkarrekin egingo dugu aurrera.

### CURRICULUMAREKIN BATERAGARRIAK...

Ikasleak hartzaile direnean, eskolaren curriculumarekin bateragarriak diren proiektuak sortzen ditugu, kasuan kasuko mailaren eskakizunei erantzunez.

### GENERO-BERDINTASUNA SUSTATUZ...

Pertsonengan sinesten dugu eta genero-berdintasunaren alde egiteko helburua argia da. Horregatik, neska-mutiko, emakume-gizonezkoen arteko berdintasuna bai unitate didaktikoetan zein hartzaileen lan metodologian txertatzen ditugu.

### BEHAR BEREZIAK DITUZTEN PERTSONEKIN LANEAN...

Pertsona erdigunean jarri eta guztiok komunitatearen parte sentitzeko lan egiten dugu. Hortaz, behar bereziak dituzten pertsonentzat irtenbide egokituak bilatzen ditugu.

**Araziko lan metodologiak bat egiten du “Haurren Hiria” proiektuarekin, Francisco Tonucci erreferente bat izan baita gure lantaldearentzat, enpresa sortu zenetik.**



## 2. Hartzailleak

Zerbitzua 8-12 urte bitarteko Tolosako haur guztiei zuzendu zaie, hau da, Lehen Hezkuntza 3, 4, 5 eta 6 mailako haurrei. Herrikide, Laskorain eta Samaniego ikastetxeetako maila hauetan ikasgela bakoitzeko ordezkari bat izendatu da.

Haurrez gain, zuzenean kontseiluaren partaide izan ez arren, zeharkako hartzailatzat hartu dira, gainontzeko beste haurrak, haurren heziketaz arduratzen diren pertsona helduak eta profesionalak: gurasoak eta familiak, kale-hezitzaileak, irakasleak, besteak beste.

## 3. Zerbitzuaren helburuak

### Helburu nagusiak:

- Ikastetxeen laguntzaz, Tolosako 8-12 urte bitarteko haurrekin Tolosako herrian Haurren kontseilu egonkor bat eratzea. Haurrei ahotsa jarri eta zer nolako Tolosa behar duten adierazteko aukera eskaini.
- Haurrak eskubide osoko herritar eta eskubideen subjektu direla aitortzea, beraien izaera eta nortasuna zein testuingurutan eraten den kontuan izanik.
- Haurrak aisialdiaz era aktiboan, parte hartzailean, sortzailean eta osasungarrian gozatzea.
- Haurren artean aniztasuna ezagutzen eta ezberdina dena onartzen laguntzea.
- Nesken eta mutilen arteko aukera berdintasuna bermatzea.
- Haurren artean euskaraz egitea ohikoa izan dadin bultzatzea eta horretan gustura aritu daitezen laguntzea.
- Parte hartzeko kultura aktibo eta arduratsua sortu eta hedatzea, haurrak komunitateko parte diren subjektu aktiboak izan daitezen.

### Helburu zehatzak:

- Tolosan eraten ari garen parte hartze sistemaren baitan neska-mutilen parte-hartzea bermatuko duen azpi-sistema osatzea, lehen unetik eta berengan eragina izan dezaketen gai orotan hitza hartzeko eta ekarpenak egiteko aukera izan dezaten. Hau da, zeharkakotasuna helburu, ingurugiroa, generoa eta hizkuntza irizpideak aintzat hartzen diren bezala, haurrak eta beren nahiak eta beharrak aintzat hartuko dituen parte hartze sistema osatzea.
- Tolosako neska-mutilen parte-hartze prozesua sustatu beraien bizipenak herriko espazioen erabileran eskala-balore bihurtuz.
- Haurrak herritar sentitzea. Subjektu sentiaraztea, komunitate baten zati direla ikusarazi eta beraien hitzak garrantzia duela erakutsi.
- Udalak, Tolosako espazio publikoaren banaketa haurren begietatik ikustea eta etorkizuneko ildoetan kontuan hartzea.
- Haurra herritar soila izatea baino gehiago herritartasuna gazteetatik lantzea, besteen ahotsa entzun eta errespetatuz, dibertsitatetik eraikiz. Kritikoak, askeak, parte hartzaile eta interesdunak izan daitezen sustatuz.
- Epe ertainean kontseiluak aurkezturiko ekintza sorta aurrekontu batez lagundu eta gauzatzeko pausoak ematea.

## 4. Zerbitzuaren garapena

### 4.1. Haurren Kontseiluaren saioak

- Lehen saioa
- Bigarren saioa
- Hirugarren saioa
- Laugarren saioa

Jarraian, saio bakoitzaren txostena aurkezten da.

# Tolosako Haurren Kontseilua

2019-2020 ikasturtea

## Urriak 24, Haurren Kontseiluaren lehen saioa

Dokumentu honen bitartez urriaren 24an Tolosako kultur etxean izandako saioaren txostena aurkezten da.

---

### Aurkibidea

1. Saioaren iraupena eta egitaraua
2. Saioaren **antolaketa**
3. Lantaldeak
4. Ondorioak eta hurrengo saiorako proposatzen diren edukiak
5. Materiala

Eranskina: "Urriaren 24ko aurkezpena"

---

### 1. Saioaren iraupena eta egitaraua

Saioaren iraupena 3,5 ordukoa izan da, goizeko 9:00tatik 12:30ak arte.

- **9:00-9:30**  
Goizeko 9:00tan Araziko hezitzaileak eskoletan bertaratu dira haurrak jasotzeko (Herrikide, oinez; Laskorain eta Samaniego, autobusez).
- **9:30 – 10:30**  
Ongi etorria, hezitzaileen aurkezpena. Aurkezpena powerpoint formatuan eta herriko puntu ezberdinak islatzen dituzten argazkien proiektzioa.
- **10:30-11:00**  
Atsedena eta hamaiketakoa. Taldeak egiteko jolasa eta taldekako haurren aurkezpena.
- **11:00 – 12:00**  
Eskulana eta hurrengo saiorako ideiak jaso, ideia zaparradaren bitartez.
- **12:00-12:30**  
Haurrak eskolara abiatu dira Araziko hezitzaileen laguntzarekin (Herrikide, oinez; Laskorain eta Samaniego, autobusez).

*\*8:45tan kultur etxean bertaratu da Araziko lantaldea, materiala eta aretoa antolatzen.*

## 2. Saioaren antolaketa

Goizeko 9:30tan haurrak iristen dira Kultur Etxera eta U forman esertzen dira, haien aurrean Tolosako mapa erakusten duen lona erraldoia dutela. Hezitzaileek bere burua aurkeztu eta bileraren helburu nagusia azaltzen da. Jarraian proiektua aurkezten da power point formatuan egindako aurkezpen batekin: nondik datorren, noiztik egiten den Tolosan, zer lantzen den, etab, haurren galderak momentuan erantzunez. Modu berean, Tolosako puntu ezberdinetan ateratako argazkiak erakusten dira eta haurrekin batera hobekuntzarako proposamenak eztabaidatzen dira.

*Ikus eranskina: "Urriaren 24ko aurkezpena".*



Aurkezpena landu eta haurren galderak erantzun ondoren, gelako ordezkariaren lana bideratzeko modua azaldu zaie. Alde batetik, beren gelakideei, irakaslearen laguntzaz, bileran jaso eta landu den informazioa zabaldu behar diote. Eta bestetik, kartela eta gutunazala erakutsiz, horiek gelan jarri beharko dituztela adierazten da. Kartela gelan proiektuaren berri emateko eta ikasturtean zehar ospatuko diren saioak gogoan edukitzeko. Gutunazalaren bidez, hurrengo bilerara bitartean, gelakideek beraien proposamenak, ideiak, ekarpenak, etab. paper batean idatzi eta gutunazalean txertatuko dituzte. Beraz, hurrengo saiora gutunazala ekarri beharko du gela bakoitzeko ordezkariak.



*Gela bakoitzeko ordezkariari banatutako kartela eta gutunazala*

Araziko hezitzaile taldeak haurrek saioan esandako guztia jaso dute. Horrela hobetu beharreko puntuak identifikatzen hasi gara eta hurrengo saioan landu daitezkeen Tolosako hainbat gune jaso ditugu.


## Honako ideiak landu dira hurrekin batera, aurkezpena eta argazkiak aztertu diren bitartean:

- Plazetan aulkiak bakarrik ez, mahaiak ere jarri behar dira eta hauetan partxisa, xakea etab. jarri.
- Aulkiak borobilean ere jartzea aukera egokia da.
- Haur guztiak ados daude: parkeak ez daudela ondo pentsatuta, hau da, parkeak gurasoen erosotasunerako daude prestatuta haurrak beti begi bistan izateko. Baina hurrek jolasetan ezkutatzeko gogoia izaten dute, beraz, bi ideia hauek ezin dira bat egin.
- Herrian zehar komun publikoak gutxi eta zikinak. Gainera askok barruan harrapatuta gelditzeko beldurra adierazi dute. Asko sakondu dira gai honetan.
- Ibaiaren garbitasunaren inguruan zalantzak, batzuentzat garbia baina beste batzuentzat ez. Ez dira asko sakondu gai honetan
- Bizikletak aparkatzeko leku falta, askotan zuhaitzetan lotuta egoten dira. Haur askok adierazi dute bizikleta aparkaleku falta.
- Oinezko pasabideetan bizikleta asko ibiltzen dira, bidegorria falta da. Asko sakondu dira bidegorri faltaren inguruan.
- Parke batean kirol asko burutzen dira eta askotan baloia ibaira erotzen da. Sokari lotutako kubo batekin ibiltzen dira eroritako baloiak jasotzen.
- Txakur kaka ugari herrian zehar. Kakentzako zakarrontzi edota txakur parke falta.
- Tolosan 40 kale daude pertsonen izena dutenak (39 gizona eta 1 emakumezkoa). Ez da emakumezkoen lana balioan jartzen. Lehen, gizona lanak askoz protagonismo handiagoa zuen. Umeak ez dira asko sakondu gai honetan.
- Espaloiak toki batzuetan oso estuak dira.
- Semaforoak oso azkar jartzen dira gorrian.
- Karelako parkea (karela taberna bat da).
- Zebrabide gehiago behar dira.
- Umeentzako abentura edo kirol parkea egitea Zumardin.
- Pantaila gehiago jartzea herrian zehar eta bertan Tolosako Haurren Hiria proiektuan lantzen eta lortzen diren gauzak jartzea herritarrek informatzeko proiektuaren inguruan.
- Eguzki Lore parkea berritu.

*10:30tan atsedena eta hamaiketako hartzeko tarte (15 min). Lantaldeak sortzeko dinamika.*

Eguraldia txarra dela eta triangelu plazako estalpean egin da. 15 minutu pasatakoan taldeak egiteko txartelak (marrubi, gerezi eta mandarina) banatuko ditugu eta hurrei eskatu zaie txartelaren arabera elkartzeko: marrubiak marrubiekin, etab.

Honako txartelak banatu dira, lantaldeak sortzeko helburuarekin:



Talde txikian daudela (13 marrubi, 13 gerezi eta 14 mandarina) hezitzaile bat hurbildu zaie eta elkar ezagutzeko dinamika egin da. Haurrak borobilean jarri eta hezitzailea hasiko da bere izena, adina eta nondik datorren esaten. Jarraian haurrak banan-banan hezitzailearen modu berdinean aurkezten joango dira.

*11:00tan aretora itzuli eta eskulanari ekin diogu.*

Haurrak lau taldetan banatu ditugu mailaren arabera, adin bakoitzari dagokion erritmoa jarraitzeko helburuarekin (LH 3-4-5-6) eta talde bakoitza hezitzaile batekin egon da.

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako hurrek lehenago bukatu dute eta haien iritzia modu sakonagoan jasotzeko inkesta pasa zaie. Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako hurrekin aritu diren hezitzaileak solasa bultzatu dute hurren iritzia jasotzeko galderak eginez (zein da zure lekurik gogokoena?, esaterako).

Material guztia (etxe zein teilatuaren A3ak, goraizeak, kola, zeloa) mahai gainean dagoelarik, haur bakoitzak Kultur Etxearen maketa egin du saioa amaitutakoan gelara eramateko. Modu honetan, hurrengo saioetan beraiek landu nahi dituzten eraikinak, gune publikoak, etab, zein itxura izan dezakeen erakutsiko diete gainontzeko gelakideei.

Hau da, kultur etxea urtean zehar jarraituko den dinamikaren adibidea izango da. Ikasturtean zehar burutuko diren saioetan hurrek "eraikiko" dituzte Tolosan faltan botatzen dizuten eraikinak, gune publikoak, etab, baita daudenak "berreraikitzeke aukerak" aztertu ere.






Saioa amaitu aurretik maketa bukatu duten haurrei inkesta bat banatu zaie. Saiorekin bukatzeko, haur bakoitzari gometx bat banatu zaio. Gometxa diana batean pegatu du, egin den lehenengo saioaren balorazioa emateko asmoarekin (dianaren erdia, 0 puntu, oso txarra; dianaren kanpoaldea, 10 puntu, oso ona).

**TOLOSAKO HAURREN HIRIA**  
2019-2020 IKASTURTEA

**Haurren Kontseiluaren lehen saioa**  
2019ko Urriak 24

**INKESTA:**

1. Zure iritzia, zein da Tolosako lekukin onena?  
Lekua zehaztu eta zergatik aukeratu duzun azaldu mesedez!
2. Zure iritzia, zein da Tolosako lekukin okerrena?  
Lekua zehaztu eta zergatik aukeratu duzun azaldu mesedez!
3. Herririk bakarrik ibiltzeko aukera duzu?  
Zerrendatu bakarrik egiten dituzun gauzak: eskolara joan, parkera jantzi...
4. Zure kabur gauza gehiago egiteko aukera gutatuko litzaizake?  
Erantzuna baiezkatu bada, zer behariko zenuke hori lortzeko?
5. Zure ustez, Tolosan hobetu behar diren lekukak zehaztu hemen.



*Haurren iritzia jasotzeko inkesta eta haien balorazioa jasotzeko diana*



Inkestaren bitartez honako ideiak jaso dira:

- Kanean jolas gehiagoren beharra.
- Txakur kaka gehiegi kanean.
- Bidegorri falta.
- Kondeko aldapako espaloia oso estua da, parkean jolas gehiago eta aterpea.
- Tolosako tokirik okerrenak zikinak dauden plazak dira.
- Bizikletak lotzeko toki falta.
- Komun publikoen falta eta daudenetan txukuntasun eza, ataskatzeko beldurra.
- Kaleetan zehar dauden pantailak gehitzea.
- Parke jurasikoa zikina.
- Emperador kanean farola falta.
- Eguzki loreko paseoan farola falta.
- Tolosako tokirik okerrena kirikiño.
- Kopibat pareko zelaian: saski baloiko kanastak altuegi eta baloia erreka joaten da.
- Alondegi plazak gauetan beldurra ematen du. Plazan ez dago ezer egitekorik.
- Kioskoa hobetu beharra.
- Musika eskola kalea hobetu beharra, oso iluna da.
- 30 gunea.
- Zerkausian neguan hotz handia egiten du nahiz eta berogailuak egon eta udaran berriz bero.
- Triangeluko baldosak.
- Semaforoak.
- Alde zaharra da Tolosako tokirik txarrena ez dagoelako ezer jolasteko.
- Korreos kanean koska asko daude.
- Sokatako kaleak orokorrean oso balorazioa ona du ezkutatzeko toki asko daudelako.
- Berdura plaza hobetu beharra.
- Tunelak zikin egoten dira, pixez beteta. Korreos kalea ere bai.
- Zakarrontzi gehiago.

Jarraian, haurren balorazioa jasotzeko diana aurkezten da. Gehiengoak 10 puntuko balorazioa egin du (0, oso txarra; 10, oso ona).



### 3. Lantaldeak

1 Taldea: MARRUBIAK	2 Taldea: GEREZIAK	3 Taldea: MANDARINAK
<p><b>Herrikide:</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>LH 3.A Jone Zaldua Balerdi</li> <li>LH 3.B Markel Artola Izagirre</li> <li>LH 4.A Ander Huertos Escobar</li> <li>LH 4.D Nahia Urdapilleta Izagirre</li> </ol> <p><b>Laskorain:</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>LH 3. Margot Kortejarena</li> <li>LH 3. Danel Zubeldia Larrañaga</li> <li>LH 3. Nahia Elosegi Balenziaga</li> <li>LH 4. Mari Allue Garmendia</li> <li>LH 4. Andu Aranburu Muñoz</li> <li>LH 5. Markel Insausti</li> </ol> <p><b>Samaniego:</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>LH 3.A Joar Gartzia Ramilla</li> <li>LH 3.B Libe Bartolome Aguado</li> <li>LH 4.A Unai Urdapilleta Iribarren</li> <li>LH 4.B Beñat Salaberria Etxaburua</li> </ol>	<p><b>Herrikide:</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>LH 3.C Iker Carrasco Martin</li> <li>LH 4.B Haizea Garmendia</li> <li>LH 5.A Maria Michelena</li> <li>LH 6.A Ibon Azcue Narro</li> <li>LH 6.B Amaiur Gutierrez</li> </ol> <p><b>Laskorain:</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>LH 3. Beñat Goenaga Mateos</li> <li>LH 4. Mikel Garmendia Sagasti</li> <li>LH 5. Uxue Lasa Perez</li> <li>LH 6. Beñat Fernandez</li> <li>LH 6. Laia Uria</li> </ol> <p><b>Samaniego:</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>LH 3.C Arantxa Nieves Ramirez</li> <li>LH 4.C Naroa Lopetegi Tena</li> <li>LH 5.A Odei Gurrutxaga Lezea</li> <li>LH 6.A Maren Vitero</li> </ol>	<p><b>Herrikide:</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>LH 4.C Ander Tolosa Iturbe</li> <li>LH 5.B Maroon Ouatzizi</li> <li>LH 5.C Garazi Legarra / Paula Zamarripa</li> <li>LH 6.C Iker Huertos Escobar</li> <li>LH 6.D Unai Martin Echeveste</li> </ol> <p><b>Laskorain:</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>LH 4. Iratxe Zubelzu Basterretxea</li> <li>LH 5. Pablo Curras</li> <li>LH 5. Uxue Gastesi</li> <li>LH 6. Nahia Azcue Martinez</li> <li>LH 6. Xiker Olazabal</li> </ol> <p><b>Samaniego:</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>LH 5.B Ariane Sarasola Velasco</li> <li>LH 5.C Lorea Zunzunegi Adurriaga</li> <li>LH 6.B Khawla Kandili Berrahman</li> <li>LH 6.C Adam Ammar Hadis</li> </ol>

HERRIKIDE 14 GELA 14 ORDEZKARI	LASKORAIN 16 GELA 16 ORDEZKARI	SAMANIEGO 12 GELA 12 ORDEZKARI	GUZTIRA 42 GELA 42 ORDEZKARI
LH 3 – HIRU GELA LH 4 – LAU GELA LH 5 – HIRU GELA LH 6 – LAU GELA	LH 3 – LAU GELA LH 4 – LAU GELA LH 5 – LAU GELA LH 6 – LAU GELA	LH 3 – HIRU GELA LH 4 – HIRU GELA LH 5 – HIRU GELA LH 6 – HIRU GELA	LH 3 – 10 GELA LH 4 – 11 GELA LH 5 – 10 GELA LH 6 – 11 GELA

#### 4. Ondorioak eta hurrengo saiorako proposatzen diren edukiak:

Lehenengo saioaren nondik norakoa ikusi eta ideia nagusiak jasota, hurrengo saiorako puntu hauek aztertuko dira:

- Bidegorria
- Komun publikoak
- Bizikletentzako aparkalekuak
- Mahaiak eta aulki borobilak
- Farolak
- Kopibat pareko jolastokia (Plaza Poeta Lizardi)
- Karela taberna aurreko parkea
- Espaloi estuak (kondeko aldapa adibidez)

Hurrengo saiorako hezitzaileek gai hauen inguruan sakondu eta hobekuntzak Tolosako maparen gainean islatzeko maketak martxan jarriko dira Arazitik (elementu txiki zein handienak).

#### 5. Materiala

Araziko lantaldeak honako baliabideak hornitu ditu:

- Portatila
- Aurkezpena
- Argazkiak
- Inkestak
- Lona
- Kultur Etxe eta Udaletxearen maketa adibide eginak
- Txapak
- Kartelak
- Gutunazalak
- Eskulana egiteko bi A3ak (etxea eta teilatua)
- Goraizeak
- Kolak
- Arkatzak
- Borragomak
- Zorroskiloak
- Margoak
- Zeloak
- Lau motxila
- Haurren zerrenda orokorra (eskola bakoitzeko haurrak)
- Taldeen zerrenda
- Txartelak marrubi, gerezi, mandarina
- Musika aparatua
- Karpetak
- Zakarrontziak
- Diana
- Gometxak

# TOLOSAKO HAURREN HIRIA

2019-2020 ikasturtea

## HAURREN KONTSEILUA

Lehen saioa: 2019ko Urriak 24



### Aurkibidea

- Zer da?
- Zeintzuk gara?
- Proposamen honekin gatoz!
- Zein da zuen iritzia?
- Etorkizuneko Tolosa eraiki dezagun!
- Gelako lagunei zer kontatuko diegu?

*\*11:00ak aldera atsedena!*

## Zer da?



### *“Gure hiriak ez ditu kontuan hartzen haurraren beharrak”*

- Hausnarketa honetatik abiatuta, Francesco Tonuccik ikertzaile italiarrak **“Haurren Hiria”** proiektua abiatu zuen.



## Tolosako Haurren Hiria

- Haurren ikuspuntutik abiatuta, **Tolosa hobetzeko helburua** duen proiektua da.
- Gaur egun Europa eta Hego Amerikako **200 udalerrri baino gehiagotan** lantzen ari den proiektua da.





## Proiektuaren onurak:

2014-2015eko gaia: **Kaleak jolasleku gisa.**

Eraitza: San Joanetan Musika Parkean eta Jolasak.

2015-2016ko gaia: **Aisialdirako ekintzak.**

Eraitza: Haurren Agenda, San Juan su txikia.

2016-2017ko gaia: **Herriko baliabideak.**

Eraitza: Tirolina Usabalen.

2017-2018ko gaia: **Belaunaldien arteko harremana.**


Eraitza: Jolasak lurrean Alondegan.

2018-2019ko gaia: **Mugikortasuna**

Eraitza: Oztopoak kentzeko neurriak bideratzen ari dira.



## Zeintzuk gara?

- **Haurren iritzia** kontuan hartzeko helburuarekin, 8-12 urte bitarteko ordezkariak izendatzen dira.
  - Tolosako Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailako gela bakoitzeko ordezkari bat "**Haurren Kontseilua**"ren parte izango da.
  - **Herrikide, Laskorain eta Samaniego** ikastetxeekin elkarlanean.
- 



## Haurren Kontseilua

- Kontseiluaren kideak ikasturtean zehar sei aldiz elkartuko dira: lau saio eskola ordutan antolatuko dira, saio bat familiekin eta azken saioa udal ordezkariekin.

*Eskola ordutan egingo diren saioak  
9:30tatik 12:00tara burutuko dira  
Tolosako Kultur Etxean.*

*Bertan, Araziko lantaldeko  
hezitzaileekin eta Tolosako kale  
hezitzaileekin arituko dira haurrak.*

## Lan saioak

### Udazkena

Urriak 24,  
osteguna

Azaroak 14,  
osteguna

### Negua

Abenduak 13,  
ostirala

Urtarrilak 23,  
osteguna

### Udaberria

**Martxoak 14,**  
larunbata (familiak)

Apirilak 24,  
ostirala

**Maiatzak 16**  
(larunbata, udal  
ordezkariak)



## Proposamen honekin gatoz!

Denon beharrak kontuan hartzen dituen herria eraikitzeko helburuarekin, ikuspuntu ezberdinetatik aztertuko dugu Tolosa:

Haurren begietatik, genero ikuspegitik, etorkinen azalean jarrita, dibertsitate funtzionala duten pertsonen lekuan jarrita...

...beti ere, helburu bakarrarekin: **gure udalerria hobetu!**

**2019-2020 ikasturteko gaia:**

***“Tolosa, denon herria”***

***Haurren neurrirako herriak  
denen neurrirako herriak dira.***




# Zein da zuen iritzia?



Nondik nora ibiltzen zareten pentsatu eta galdera hau erantzun...

- Zer aldatuko zenuke Tolosan erosoago ibiltzeko?
- Zer aldatuko zenuke Tolosan lasaiago egoteko?
- Zer aldatuko zenuke Tolosan gauzak bakarrik egin ahal izateko?

*Denon iritzia entzun ondoren, ikasturte honetan aztertuko ditugun eremuak zehaztuko ditugu.*

## Etorkizuneko Tolosa eraiki dezagun!





*Eta gelako lagunei...  
zer kontatuko diegu?*





***Eskerrik asko zuen parte  
hartzearengatik!***



***Hurrengo saioa:  
Azaroak 14, osteguna***

















# Tolosako Haurren Kontseilua

2019-2020 ikasturtea

## Azaroak 14, Haurren Kontseiluaren bigarren saioa

Dokumentu honen bitartez azaroaren 14an izandako saioaren txostena aurkezten da.

---

### Aurkibidea

1. Saioaren iraupena eta egitaraua
2. Saioaren antolaketa
3. Lantaldeak
4. Balorazioa jasotzeko diana
5. Ondorioak eta hurrengo saiorako proposatzen diren edukiak
6. Materiala

Eranskinak:

*“Azaroaren 14ko aurkezpena”*

*“Ebakigarriak”*

---

### 1. Saioaren iraupena eta egitaraua

Saioaren iraupena 3,5 ordukoa izan da, goizeko 9:00tatik 12:30ak arte.

- **9:00-9:30**  
Goizeko 9:00tan Araziko hezitzaileak eskoletan bertaratu dira haurrak jasotzeko (Herrikide, oinez; Laskorain eta Samaniego, autobusez).
- **9:30 – 10:30**  
Ongi etorria, hezitzaileen aurkezpena. Aurkezpena powerpoint formatuan eta herriko hiru parke aztertzeko proposamena. Talde bakoitzak parke bat egokitzeko proposamena bideratuko du:
  - Marrubiak; Plaza poeta Lizardi
  - Gereziak; Karela taberna aurreko parkea
  - Mandarinak; Zumardi txikiko parkea
- **10:30-11:00**  
Atsedena eta hamaiketakoa.
- **11:00 – 11:30**  
Lokotx bilketaren jolasa.
- **11:30 – 12:00**  
Mintza txokorako murala prestatzen hasi. Saioaren balorazioa egiteko diana.
- **12:00-12:30**  
Haurrak eskolara abiatu dira Araziko hezitzaileen laguntzarekin (Herrikide, oinez; Laskorain eta Samaniego, autobusez).

## 2. Saioaren antolaketa

Goizeko 9:30tan haurrak iristen dira Kultur Etxera eta U forman esertzen dira, haien aurrean mahaia hiru multzotan antolatuta daudelarik. Hezitzaileek ongi etorria ematen diete eta gelakideen oharrak ekarri ote dituzten galdetzen diete. Aipamen ugari jaso dira banatutako gutunazaletan, eta banaka banaka irakurtzeko denbora nahikoa izango ez dugunez, hezitzaileek ohar guztiak jaso eta txosten honetan barneratzea adosten da. Jarraian saioaren helburua aurkezten da power point formatuan egindako aurkezpen batekin, haurren galderak momentuan erantzunez.

*Ikus eranskina: "Azaroaren 14ko aurkezpena".*




Herriko hiru parke ezberdin lantzeko proposamena luzatu zaie haurrei, eta horretarako gune bakoitzaren maketa sortzeko elementuak banatu zaizkie. Saioa bideratu da Araziko hezitzaileekin (Nerea, Iñatza eta Abraham) eta Tolosako kale hezitzaileen laguntzarekin (Jone eta Irati). Dokumentu honen bitartez jarduera bakoitzaren zehaztapenak ematen dira.



### Haurrek sortutako maketak:


#### Zumardia:

Udalaren proiektua aurkeztu zaie eta haur guztiek iritzi ona azaldu dute. Taldeka egindako lanean haien proposamenak txertatu dituzte: tirolina, iturria eta komun publikoa txertatzea.






Elementu hauek formatu ebakigarrian eskaini zaizkie, eta hurrek moztu, tolestu eta itsatsi egin dituzte dagokion lekuan.




..... *Komun publikoa*




*Iturria*




*Zebrabidea*




*Tolosako panela*



*Eguzki plaka duen farola*





*Soinua duen semaforoa*



*Txirrindularia*

### Lizardi poetaren plaza:

Haurrek farola gehiago, zebrabide bat, komun publiko bat, soina duen semaforoa eta elementu naturalekin egindako parke bat proposatu dute.



*Elementu naturalekin egindako parkeak (egurrezko jolasak, esaterako).*

### Kerala taberna ondoko parkea (Soka parkea):

Hurrek iturri gehiago, komun publikoa, zuhaitz gehiago eta txirrindarekin iristeko bidegorria proposatu dute. Modu berean, Tolosan abisuak emateko erabiltzen diren pantailak oso modu positiboan baloratu dituzte eta parke honetan horietako bat jartzea proposatu dute.



*Tolosako informazio panela*





### Lokotx bilketaren jolasa

Atsedena triangelu plazan egin dugu eta hurrei jolasteko tartea eskaini zaie. Lokotx bilketaren dinamika jarraituz, elementu naturalak eta hondakinak erakusten dituzten txartelak sailkatu behar izan dituzte. Amaieran, hondakinak modu arduratsuan kudeatzearen garrantziaz hitz egin dugu.







## Mintza txokorako murala: prestaketaren hasiera

Saio bakoitzean Mintza Txokorako tarte bat gordetzea aurreikusten da. Bertan azalduko diren ondorioak batzen joateko, eta haurrek egindako eskulanak bertan erakusteko. Oraingoan, ikasturteko leloa osatzen duten hizkiak margotu ditugu. Arazik letrak diseinatu ditu, letra bakoitzean haur bat egoera ezberdin batean irudikatuz.





## Haurrek egindako proposamenak:

- Amarozeko kallejoiak kontrolatu (beldurra)
- Parte zaharra peatonala izatea
- Herriko lurra konpondu
- Itsu eta gurpildunentzat egokitu herria.
- Zebrabideak gehiago eta daudenak konpondu (berriro margotu). Adib. Iturramendi.
- Semaforoak gehiago jarri eta konpondu (iraupen handiagoa izatea oinezkoentzat, akustikoak izatea). Adibidez, Larramendiko zubia pasatu ondoren, Plaza Berri aldean semaforo bat puskatuta dago (arrakantuta).
- Herri kide eskola kanpoan “kontuz umeak” kartela jarri
- Farola gehiago (gutxi konsumitzen dutenak)
- Aterpedun parke gehiago (Adib. Amarozeko frontoia)
- Eskola kanpoan municipalak egotea sarrera eta irteera ordutan
- Solana kaletik kotxe asko pasatzen dira
- Herriko komunak hobetu eta gehiago jarri
- Espaloiak jarri eta zabaldu (adib. Sanblas)
- Iturri gehiago (adib. kiosko ondoan)
- Larramendi auzoko iturriak konpondu
- Larramendijko txakur parkeko iturria ez dago ondo
- Alde zaharra txukundu eta iturri gehiago
- Zakarrontzi gehiago
- Lurrera zaborra botatzen duenari atenzioa deitu
- Lurrera zaborra botatzen duenari atenzioa deitu
- Sokatako parkea berritu (estali, banku gehiago..)
- Kaleetan panelak jarri
- Bidegorria osatu
- Bidegorrian barandillak jarri
- Bidegorrian aterpeak jarri (ez irristatzeko)
- Bidegorrian zuloak, koskak eta bidea konpondu
- Bidegorri kanpotik dabiltzanai isuna
- Bidegorrian seinaleak jarri
- Skate parkea berritu
- Skate parkea estali
- Skateko parkea handitu
- Skate parke aldamenen dauden belardiak kendu
- Plaza Berrian skate parke berria
- Pizina hobetu
- Kiroldegi kanpoko eskaileretan ranpa bat egitea
- Usabal kanpoko futbol zelaian kortxoak kentzea
- Umeentzako gimnasio bat egitea
- Pizinan txirristak kendu eta toboganak jarri
- Kiroldesberdinentzako kantzak egitea (adib. dantzatzeko toki ba edota Bizikleta pista bat Iturramendiko zelaieko aldamen)
- Izotz parkea
- Kiroldegiko spa 12 urtetik beherakoentzat izatea
- Adinaren arabera debekuak kendu
- San Ignazio frontian pilotak erortzen zaizkigu eta galduta gelditzen dira. Ezin dugu bila joan.
- Saskibaloiko sarea oso txikia da eta baloiak bertan ataskatuta gelditzen dira.

- Kanpo futbol ondoan dagoen pinpon mahaian sarea falta da.
- Parketan gauza dibertigarri gehiago
- Bizkaia kaleko plazoletako futbol zelaia hobetu
- Txikiparkeak gauza gehiago jarri
- Plaza berrian porteriak jartzea
- Grada gehiago jartzea kanpoko zelaietan
- Berdegune gehiago (zuhaitz gehiago)
- Berdeguneetan mahaia jarri (egurrezkoak)
- Kale Handin zuhaitz gehiago
- Herrikiden belarra jarri
- Zuhaitz etxea eraiki
- Parke natural handi bat
- Txakur parkea
- Elozegi parkea iriki eta bankuak jarri
- Parketan gauza dibertigarri gehiago
- Bizkaia kaleko plazoletako futbol zelaia hobetu
- Patioko lurak hobetu
- Haurrentzako eskolak
- Haurrentzako atrakzioak eta puzgarriak jartzea
- Topagunea 6. mailakoentzat irekita egotea
- Liburutegia
- Soldadu kaleko lurra konpondu
- Elbarrien kotxeentzako aparkaleku gehiago
- Triangelu plazan dauden bankuak borobilean jarri eta lurra konpondu
- Larranmendiko alkantarilak konpontzea
- San Franciscoko ikastola zaharra botatzea (ez da ezertarako erabiltzen, abandonatuta dago)
- Amarozeke zuloak tapatu
- Amarozeke kaleak kontrolatu (beldurra)
- Umeen zinea euskaraz jarri
- Eguraldi txarra dagoenerako txoko goxo eta epel bat
- Parke gune bat baloi gabe ibiltzeko
- Sokatako parkea berritu (estali, banku gehiago..)
- Trinkete plazan kontrol gehiago (lapurketak)
- Bizikleta aparkalekutan dauden bizikleta abandonatuak kentzea
- Etxeko lanak taldean egiteko toki bat
- Denda kanpotan txakurrak lotzeko zerbait jartzea
- Kotxe batzuk zebrabidetan egoten dira aparkatuta eta ez dute ikusten usten
- Kiroldagiko txikiparkean gauza gehiago jarri
- Plaza berriko barandilla konpondu
- Pista patineseko parkea estali (baloia ez erortzeko eta eguraldiagatik)
- Ibai garbiketa
- Erreketako barandillak guztiz itxi
- Errekan bañatu ahal izatea
- Grada gehiago jartzea kanpoko zelaietan
- Herri kide eskola kanpoan "kontuz umeak" kartela jarri
- Tirolina jarri herrian zehar
- Egin behar diren hobekuntzetan ingurumena zaintzen duten materialak erabili
- Urbano bat baino gehiago
- O.T.A gabeko aparkalekuak

- Tolosako zati tristeak alaitu
- Auto, bizikleta, patinete elektrikoak alokairuan jarri
- Autobus elektrikoa jarri (kutsadura murrizteko)

### 3. Lantaldeak

1 Taldea: MARRUBIAK	2 Taldea: GEREZIAK	3 Taldea: MANDARINAK
<p><b>Herrikide:</b></p> <p>15. LH 3.A Jone Zaldua Balerdi            16. LH 3.B Markel Artola Izagirre            17. LH 4.A Ander Huertos Escobar            18. LH 4.D Nahia Urdapilleta Izagirre</p> <p><b>Laskorain:</b></p> <p>19. LH 3. Margot Kortejarena            20. LH 3. Danel Zubeldia Larrañaga            21. LH 3.Nahia Elozegi Balenziaga            22. LH 4. Mari Allue Garmendia            23. LH 4.Andu Aranburu Muñoz            24. LH 5.Markel Insausti</p> <p><b>Samaniego:</b></p> <p>25. LH 3.A Joar Gartzia Ramilla            26. LH 3.B Libe Bartolome Aguado            27. LH 4.A Unai Urdapilleta Iribarren            28. LH 4.B Beñat Salaberria Etxaburua</p>	<p><b>Herrikide:</b></p> <p>15. LH 3.C Iker Carrasco Martin            16. LH 4.B Haizea Garmendia            17. LH 5.A Maria Michelena            18. LH 6.A Ibon Azcue Narro            19. LH 6.B Amaiur Gutierrez</p> <p><b>Laskorain:</b></p> <p>20. LH 3. Beñat Goenaga Mateos            21. LH 4. Mikel Garmendia Sagasti            22. LH 5. Uxue Lasa Perez            23. LH 6. Beñat Fernandez            24. LH 6. Laia Uria</p> <p><b>Samaniego:</b></p> <p>25. LH 3.C Arantxa Nieves Ramirez            26. LH 4.C Naroa Lopetegi Tena            27. LH 5.A Odei Gurrutxaga Lezea            28. LH 6.A Maren Vitero</p>	<p><b>Herrikide:</b></p> <p>15. LH 4.C Ander Tolosa Iturbe            16. LH 5.B Marooon Ouatzizi            17. LH 5.C Garazi Legarra / Paula Zamarripa            18. LH 6.C Iker Huertos Escobar            19. LH 6.D Unai Martin Echeveste</p> <p><b>Laskorain:</b></p> <p>20. LH 4. Iratxe Zubelzu Basterretxea            21. LH 5. Pablo Curras            22. LH 5. Uxue Gastesi            23. LH 6. Nahia Azkue Martinez            24. LH 6.Xiker Olazabal</p> <p><b>Samaniego:</b></p> <p>25. LH 5.B Ariane Sarasola Velasco            26. LH 5.C Lorea Zunzunegi Adurriaga            27. LH 6.B Khawla Kandili Berrahman            28. LH 6.C Adam Ammar Hadis</p>

#### 4. Balorazioa jasotzeko diana



#### 5. Ondorioak eta hurrengo saiorako proposatzen diren edukiak:

Bigarren saioaren nondik norakoa ikusi eta ideia nagusiak jasota, hurrengo saiorako puntu hauek aztertuko dira:

- **Kirol instalazioak:** egungo egoera eta hobekuntza proposamenak. Neska zein mutilek aukera berdinak dituzten aztertuko da.
- **Berdeguneak.**
- **Bidegorria.**

Hurrengo saiorako hezitzaileek gai hauen inguruan sakondu eta hobekuntzak Tolosako maparen gainean islatzeko irtenbideak bideratuko dira.



## 6. Materiala

- Aurkezpena powerpoint formatuan.
- Portatila eta HDMI kablea.
- Talde txartelak: gereziak, marrubiak, mandarinak.
- Parkeen azterketa egiteko:
  - Hiru kartoi eta hiru parkeen mapak irudikatuak.
  - Ebakigarriak paper lodian: elementuen eredu ezberdinak (farola, komuna, zebrabidea, bizikleta aparkalekua, etab).
  - Goraizeak, pritt kola, zeloa, sare txikia (Poeta Lizardi plazarako).
  - Margoak, arkatzak, borragoak eta zorroskiloak.
- Jolasa: lokotx bilketaren txartelak eta otarrak.
- Letren eskulana:
  - Margoak, arkatzak, borragomak eta zorroskiloak.
  - Sokak eta pintzak letrak zintzilikatzeke.
- Haurren hitzarmenak A3 eta kartulinazko karpetak.
- Diana eta gometxak.
- Musika aparatua eta musika USB batean.
- Zabor poltsak.
- Hezitzaileen identifikazio txapak.

# TOLOSAKO HAURREN HIRIA

2019-2020 ikasturtea

## HAURREN KONTSEILUA

Bigarren saioa: 2019ko Azaroak 14

### Aurkibidea

- 1. Abiapuntua.**  
9:30-10:00, 30 minutu.
- 2. Tolosako parkeak hobetzeko proposamenak.**  
10:00-10:30, 30 minutu.
- 3. Atsedena eta hamaiketakoa.**  
10:30-11:00, 30 minutu.
- 4. Jolasa eta hurrengo saiorako gaiak.**  
11:30-12:00, 30 minutu.

# Abiapuntua

## *Aurreko saioan bildutako datuak:*

- **Parkeak**
  - Jolas parkeak
  - Natur parkeak
- **Elementu solteak**
  - Komun publikoak
  - Zebrabideak
  - ... ..



# Abiapuntua

- **Parkeak:**
  - **Tolosako parkeak hobetzeko aukerak sortu dira:** baloiak errekaraz ez erortzeko sareak jarritz, behar bereziak dituzten haurrentzat jolasak egokituz...
  - **Parke berriak egiteko ideiak proposatu dira:** abentura parkea, paint ball, etabar.

# Abiapuntua

- **Elementu solteak:**

Tolosako kaleetan aurkitzen ditugun **hainbat elementu hobetzeko aukerak sortu dira**: komun publikoen diseinua aldatuz, zebrabide gehiago jarritz, bizikleta aparkalekuak ugarituz, etabar.

# Abiapuntua

- **Parkeak hobetu edo parke berriak egin:**

1. Karela taberna ondoko parkea.
2. Poeta Lizardi plaza (baloiak ibaira erortzen dira).
3. Zumardi Txikin abentura parkea.

***Gaurko saioaren helburu nagusia talde bakoitzak parke baten inguruko proposamenak egitea da!***

# Abiapuntua

- **Tolosako kaleetan eroso eta seguru sentitzeko neurriak proposatu:**

1. Komun publikoak hobetu.
2. Bidegorria osatu eta bizikleten aparleku gehiago jarri.
3. Zebrabide, farola eta informazio-pantaila gehiago jarri.

***Talde guztietan elementu guztiak erabiltzeko aukera izango duzue (ebakigarriak)!***

***Gaurko azterketa:  
Tolosako parke ezberdinak.***



## JOLAS PARKEAK



*Amaiur parkea*



## NATUR PARKEAK



*Elosegi parkea*



*Gernikako arbola lorategiak*



*Zabalarreta parkea*



## KIROL PARKEAK



*Skatepark*



**GURE PROPOSAMENA GAURKO SAIOAN  
TALDEKA HONAKO EREMU HAUEK  
AZTERTU ETA HOBETZEA DA**



# MARRUBIAK



## POETA LIZARDI PLAZA

*Baloiak ibaira erortzen diren parkea*

# MARRUBIAK

## POETA LIZARDI PLAZA



## MARRUBIAK POETA LIZARDI PLAZA



## MARRUBIAK POETA LIZARDI PLAZA



*Amaroz parkea, baloiak ihes ez egiteko sarearen adibide.*



## MARRUBIAK

### POETA LIZARDI PLAZA



## GEREZIAK



### KARELA TABERNA

### AURREKO PARKEA

## GEREZIAK

### KARELA TABERNA AURREKO PARKEA



## GEREZIAK

### KARELA TABERNA AURREKO PARKEA



# MANDARINAK



## ZUMARDI TXIKIKO PARKEA

# MANDARINAK

## ZUMARDI TXIKIKO PARKEA

Udalak badu proiektu bat parke honetarako!



Baina...

- Proiektu ona al da?
- Proiektutik zer gustatzen zaizu?
- Zer falta zaio?
- Zer aldatuko zenukete?
- Beste proposamenik?



# MANDARINAK

## ZUMARDI TXIKIKO PARKEA



***Hona hemen  
ideia batzuk!!!***

## *Jolasdun mahaiak eta aulkiak borobilean*




## *Parkeetan ezkutaleku gehiago*





## ***Naturarekin lotura handiagoa***



***Eta hurrengo  
saioan, zer?***




## ***Gure proposamenak...***

**3. saioan, *Abenduak 13:***

**KIROL INSTALAZIOAK**

**4. saioan, *Urtarrilak 23:***

**NATURGUNEAK**







***Eskerrik asko zuen parte hartzearengatik!***





***Hurrengo saioa:  
Abenduak 13, ostirala***




Eranskina: Ebakigarriak























# Tolosako Haurren Kontseilua

2019-2020 ikasturtea

## Abenduak 13, Haurren Kontseiluaren hirugarren saioa

Dokumentu honen bitartez abenduaren 13an izandako saioaren txostena aurkezten da.

---

### Aurkibidea

1. Saioaren iraupena eta egitaraua
2. Saioaren antolaketa
3. Balorazioa jasotzeko diana
4. Ondorioak eta hurrengo saiorako proposatzen diren edukiak
5. Materiala

Eranskinak:

*“Abenduaren 13ko aurkezpena”*

*“Jolastoki inklusiboko aurkezpena”*

*“Asmakizunak eta kimika”*

---

### 1. Saioaren iraupena eta egitaraua

Saioaren iraupena 3,5 ordukoa izan da, goizeko 9:00tatik 12:30ak arte.

- **9:00-9:30**  
Goizeko 9:00tan Araziko hezitzaileak eskoletan bertaratu dira haurrak jasotzeko (Herrikide, oinez; Laskorain eta Samaniego, autobusez).
- **9:30 – 10:15**  
Ongi etorria. Kirolaren aurkezpena powerpoint formatuan eta gaiaren inguruko eztabaida. Korrikaren froga eta 2 bideoa.
- **10:15-10:45**  
Atsedena eta hamaiketakoa.
- **10:45 – 11:30**  
Jolastoki inklusiboaren aurkezpena eta diseinua. 2 Bideo.
- **11:30 – 12:00**  
Mimika eta asmakizunak. Azken tartxetxoan saioaren balorazioa.
- **12:00-12:30**  
Haurrak eskolara abiatu dira Araziko hezitzaileen laguntzarekin (Herrikide, oinez; Laskorain eta Samaniego, autobusez).



## 2. Saioaren antolaketa

Goizeko 9.30tan haur guztiak Kultur Etxera iritsitakoan, U forman esertzen dira, aurkezpeneko Power Pointa aurrean dutelarik. Hezitzaileen ongi etorria emanda, hirugarren saioari hasiera ematen saio aurkezpenarekin.

### Kirolaren aurkezpena

Aurkezpenaren erdialdean lehenengo bideoa jarri da (Alemaniako nesken futbol taldeari Liga irabateagatik eman zioten sariari buruzkoa). Aurkezpenean zehar hainbat galdera eta eztabaida txiki sortu dira landutako gaiaren inguruan. Hona hemen jaso ditugun ideiak:

- Futbola da munduan famatuena den kirola.
- Gehienak txundituta geratu dira igeria delako mundu mailan gehien praktikatzen den kirola.
- Neska kirolariak oso gutxi ezagutzen dituzte.
- Kirol guztiak ez dira berdin baloratzen.
- Kontseiluko mutil partaide batzuk diote mutilak hobeagoak dirala kiroletan, neskalk aldiz ezetz.
- Mundu mailako kirolean desberdintasun handiak daude generoan, baina Tolosan ez.
- Neska eta mutilen sari eta soldatak oso desberdinak izaten.
- Tolosan sari berdinak ematen dizkiote neska eta mutil kirolariei.
- Tolosan material nahikoa dute kirolak burutzeko.
- Mundu mailan zein Tolosan dibertsitate funtzionala duten kirolarien baldintzak hobetu daitezke.

Aurkezpenarekin amaituz, froga praktiko bat egin da. Kontseiluko bi haur bolondrez, neska bat eta mutil bat, erdira atera dira. “Neska baten moduan” korrika egiteko esan diegu. Biek, sexua kontuan hartu gabe, haur batek korrika egingo zuen moduan egin dute. Jarraian bigarren bideo jarri da, bertan froga berdina sexu eta adin desberdineko pertsoneri egiten zaielarik.

***Ikus eranskina: “Abenduaren 13ko aurkezpena” eta bi bideoak.***

### Atsedena eta hamaiketakoa

Eguraldi txarra dela eta, haur batzuk gelan nahi izan dute egin atsedena. Beraz, talde bat gelan geratu da Nerearekin eta besteak, Abraham eta Ihintzarekin merkatuko estalkira joan dira.

### Jolastoki inklusiboak

Jolastoki inklusiboak lantzen hasi gara aurkezpen batekin, bertan jolastoki tradizioa eta idealei buruz hitz egin dugu eta beraien eskoletako jolastokiak nolakoak diren aztertu dugu. Aurkezpenaz gain bi bideo ikusi ditugu, Zarauzko eta Durangoko jolastoki inklusiboenak.

***Ikus eranskina: “Jolastoki inklusiboak” eta bi bideoak.***

Honako ideia hauek jaso dira beiaren jolastokien inguruan:

- Laskorainen futbol zelai bat kendu zen beste kirolek tokia izateko.
- Antzeman dute azken urteetan futbolak garrantzia edo toki gutxiago duela jolastokietan.
- Jolastokietan antolaketa desberdinak dituzte.
- Sanmaniegion, asteazkenetan gauza esferikorik gabeko eguna da eta musika jartze dute.
- Laskorainen, ostiraletan baloi eta pelotarik ez
- Ez dira jolastokiko eremu guztiak erabiltzen.
- Ezin dute eskubaloiean jolatu.
- Sanmaniegion belargune txiki bat dago.
- Laskorainen aterpe txikiegia, euria egiten duenean tokirik ez.
- Sanmaniegion lasai egoteko 3 toki.
- Laskorainen ezin dute lasia egon, ez dago horretarako tokirik.
- Sanmaniengon “beheko eskolan” 2,3,4,5 eta 6 urtekoentzat baratza.
- Sanmaniengon adinaren arabera banaketa; 1. eta 2. mailakoentzat eta 3., 4., 5. eta 6. mailakoentzat tokiak.

Aurkezpenarekin amaituta, denon artean jolastoki ideal bat egin dugu, arbelean marrazki handi bat irudikatuz. Horretarako haurrak txanadaka atera dira, beraien ideiak arbelean irudikatzeko. Arbelean irudikatzearekin batera, guk idatziz ere jaso ditugu beraien nahiak.

### Haurrek egindako proposamenak jolastoki inklusiborako:

- Ezkutalekuak.
- Berdegune handia .
- Berdeguneak tunelak izan behar ditu.
- Laberintoa túnel, zubi, soka, etab.-ekin.
- Futbol zelaia (baina belarrezkoa, asfaltoa ez).
- Tirolina berdegunean.
- Hondar gunea.
- Ping-pong mahaia.
- Twisterra.
- Urarekin jolasteko eremua.
- Iturriak.
- Txirristak.
- Baratza.
- Rokodromoa.
- Libuturegia.
- Lasai egoteko lekuak (trena, autobusa, kotxeak, etab.).
- Zuhaitzak.
- Maila desberdinetako txirristak.
- Minigolfa.
- Aterpea.
- Kasinoa.
- Orekako jolasak.
- Sukalde txiki bat.
- Gurpilak, pneumatikoak.

## Mimika eta asmakizunak

Saioarekin amaitzeko mimika eta asmakizun jolasak burutu dira. Haurrek U forman mantenduz, bolondresak banaka edo taldeka irten dira erdira, asmakizun edo mimikako sobre bat aukeratu eta kontseiluko beste partaide guztiei tokatu zaien kasua egin die.

### 3. Balorazioa jasotzeko diana

### 4. Ondorioak eta hurrengo saiorako proposatzen diren edukiak

Saio honetako ondorio nagusia, haurrek duten jolastokia eta benetan nahi dutena ez datoz bat. Haurrek beste era bateko jolastoki bat nahi dute, inklusiboagoa.

Bigarren saioaren nondik norakoa ikusi eta ideia nagusiak jasota, hurrengo saioan landuko den gaia **Bedeguneak** izango dira.

### 5. Materiala

- Aurkezpena powerpoint formatuan.
- “Jolastoki inklusiboak” powerpoin formatuan.
- Alemaniko nesken futbol taldeko bideoa.
- “Neska batek bezala korrika” bideoa.
- Zarauzko jolastoki inklusiboaren bideoa.
- Durangoko jolastoki inklusiboaren bideoa.
- Koloretako tizak.
- Portatila eta HDMI kablea.
- Mimika eta asmakizunen sobreak.
- Diana eta gometxak.
- Post-it.
- Musika.
- Bozgoragailuak.
- Hezitzaileen identifikazio txapak.



# Tolosako Haurren Kontseilua

2019-2020 ikasturtea

## Urtarrilaren 23, Haurren Kontseiluaren laugarren saioa

Dokumentu honen bitartez urtarrilaren 23an izandako saioaren txostena aurkezten da.

---

### Aurkibidea

1. Saioaren iraupena eta egitaraua
2. Saioaren antolaketa
3. Balorazioa
4. Eskoletatik jasotako proposamenak
5. Materiala

Eranskina: *“Urtarrilaren 23ko aurkezpena”*

---

### 1. Saioaren iraupena eta egitaraua

Saioaren iraupena 3,5 ordukoa izan da, goizeko 9:00tatik 12:30ak arte.

#### Egitaraua:

- **9:00-9:30**  
Goizeko 9:00tan Araziko hezitzaileak eskoletan bertaratu dira haurrak jasotzeko (Herrikide, oinez; Laskorain eta Samaniego, autobusez).
- **9:30 – 10:00**  
Ongi etorria. Tolosako naturguneen aurkezpena powerpoint formatuan eta gaiaren inguruko eztabaida
- **10:00-10:45**  
Muralak
- **10:45 – 11:15**  
Atsedena eta hamaiketakoa
- **11:15 – 11:35**  
Elika katearen jolasa
- **11:35 – 12:00**  
Balorazioa
- **12:00-12:30**  
Haurrak eskolara abiatu dira Araziko hezitzaileen laguntzarekin (Herrikide, oinez; Laskorain eta Samaniego, autobusez).

## 2. Saioaren antolaketa

Goizeko 9.30tan haur guztiak Kultur Etxera iritsitakoan, U forman eseri dira aurkezpeneko Power Pointa aurrean dutelarik. Hezitzaileen ongi etorria emanda, laugarren saioari hasiera eman saio aurkezpenarekin. Naturguneen gaiari hasiera eman aurretik, aurreko saioan landutako gaiarekin lotura egin da. Patio inklusiboa landu ondoren, hurrek zirriborro bat egin zuten arbelean. Gaurkoan zirriborroaren diseinua aurkeztu zaie.

*\*Laugarren saio honetan falta izan diren ikasleak: Maroon Ouatzizi (Herrikide) eta Pablo Curras (Laskorain)*

- Hurrek egindako zirriborroa:



- Patio inklusiboaren diseinua, mintza txokoa erakusteko eredu:



## Naturguneen aurkezpena

Aurkezpenaren hasieran hurrek aurreko saioan konpontzeko eskatu zituzten hainbat zuzenketa erakutsi dira. Jarraian “Tolosa Berdez” liburuaren inguruan hitz egiten hasita, Tolosako naturgune desberinak ikusi eta hauen hausnarkeri eman zaio bidea. Amaitzeko “Tolosako landa Koaderno” erakitsi eta saio amaieran ikastetxe bakoitzari horrelako 10 liburuxka emango zaizkiela adierazi da.





Aurkezpenean zehar honako ideia hauek jaso dira:

- Baloiak ez erortzeko sareak ez du ibaiaren ondoan egon behar, pistaren ondoan egotea egokiagoa da, bestalde aitona-amonek ezin dute ibaia ikusi.
- Normalean ez dira naturguneetara joaten.
- Ez dakite zuhaitzak ezberdintzen.
- Elosgi parkera hainbat haur joaten dira.
- Parke gehienak ez dituzte kokatzen, hau da, zalantzak dituzte Tolosako zein eremutan dauden.
- Beraiek uste baino naturgune gehiago ditu Tolosak.
- Zergaitik dira onak naturguneak? Oxigenoa ematen dute, airea garbitzen dute, jolastokiak dira, animalia eta landare asko dituzte, kate-trofikoagatik, guk natura beharrezkoa dugulako etab.
- Zuhaitzen mozketan inguruan galdetu dute. Beste haur batzuk erantzun dute: egurgintza eta gaixotasunak dituztelako hainbat zuhaitzek.
- Erleek plonizatu eta ezitia egiten dute. Batzuk listor asiakoaren berri ere badute.
- Tolosako landa koadernoak ez dute ezagutzen.

***Ikus eranskina: "Urtarrilaren 23ko aurkezpena".***

## Eskulana

Saioarekin jarraituz egin behar dituzten 3 muralak eta bertan txertatzeko materialak erakutsi dira. Haurrak 3 taldetan banatu dira (marrubi, gerezi eta mandarina) eta talde bakoitzari mural bat izendatu zaio. Haurrak muralaren inguruan jarri, material guztia banatu eta lanean hasi dira.



***Ikus eranskina: "Neska-mutilek osaturiko horma-irudiak***



## Atsedena eta hamaiketakoa

Eguraldi txarra dela eta, haur batzuk gelan nahi izan dute egin atsedena. Beraz, talde bat gelan geratu da hezitzaile batekin eta beste taldea, beste bi hezitzaileekin, berdura plazako estalkira joan dira.

## Elika katearen jolasa

Haurrak lau multzotan banatu dira (ikasle bakoitzari 1, 2, 3 eta 4 zenbakiak izendatuz), lehenengoak landareak izango dira, bigarrenengoak belarjaleak, hirugarrenengoak haragijaleak eta laugarrenak berriz, deskonposatzaileak.

Lau multzoez naturan duten funtzioa eta zer jaten duten azalduta jolasa azaldu da. Galdera jolas bat da, hau da, hezitzaileek talde bakoitzari, banan-banan, galdera bat egin die, hauek ondo erantzuten badute, naturan jango luketeen taldeko partaide bat bereganatzen dute.

Adibidez, belarjaleek galdera bat ondo erantzunez, landareen taldeko partaide bat bereganatzen dute. Jolasean landu diren galderak mota honetakoak izan dira:



- Izendatu bost intsektu.
- Izendatu 3 txori.
- Zenbat hanka ditu armiarma batek?
- Zein da itsasoetako izakirik handiena?
- Zer egiten dute erleek?
- Zein da munduko ibairik luzeena?
- Zein da munduko mendirik altuena?
- Zein animaliak jartzen du arraultzarik handiena?
- Zein animaliak jartzen du arraultzarik txikiena?
- Zergaitik dira korrokoiak ezagunak?
- Zer egiten dute deskonposatzaileak?
- Tolosako 5 naturgune aipatu.
- Zer behar dute landareek bizitzeko? Zein da prozesuaren izena?
- Zein da Gipuzkoako mendirik altuena?
- Izaki bizidun baten argazki erakutsiz bere izena asmatzea.
- Non bizi da amurraina?
- Zuhaitz guztiak hosto iraunkorrekoak al dira? Zein garaitan galtzen dituzte hostoak?

### 3. Balorazioa

Haurren kontseiluko partaide bakoitzari balorazio fitxa bat banatu zaio. Fitxa honekin hurrekin burutu diren lau saioen balorazio orokorra egin nahi izan da. Horretarako, 5 galdera motz ,”oso ondo, ondo, ertain, gaizki eta oso gaizki” aukera borobilduz erantzutezkoen gain, garatzeko galdera bat izan dute.

**HAURREN HIRIA** **TOLOSA**

**TOLOSA – HAURREN HIRIA**

Parte-hartzaileen balorazioa

- Saio guzti hauetan zehar, nola sentitu zara?
- Taide dinamiketan eroso sentitu zera?
- Aurrera eramandako saioetan, zure iritzia kontuan izan dela uste duzu?
- Saio hauetan zehar, hitz egiteko aukera izan duzula uste duzu?
- Zein da zure balorazioa lau saio hauei dagokionean?

**TOLOSAKO HAURREN HIRIA** 2019-2020 IKASTURTEA

*Datorren ikasturteari begira, berrikuntzarik proposatuko zenuke? Zerbait bota duzu faltan?*

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

**Eskerrik asko zuen parte hartzearengatik!**

**TOLOSAKO HAURREN HIRIA** 2019-2020 IKASTURTEA

Hona hemen garatzeko galderan jasotakoa:

**Galdera: “Datorren ikasturteari begira, berrikuntzarik proposatuko zenuke? Zerbait bota duzu faltan?”**

- Jolasteko aukera gehiago. Norbaiti hamaiketako ahazten bazaio, zuek hamaiketako izan guk jateko.
- Jolas gehiago, hamaiketako eman, dibertsio gehiago eta kalean ariketa gehiago.
- Nik gehiago marrazteko gauzak egingo nituzke, maketak, muralak, etab.
- Tolosako jaiotza berritzea, Tolosan argi gehiago egotea.
- Nik gehiago margotu eta eskulan gehiago egin nahi ditut.
- Marrazketa saioak.
- Lorategi batzuk izatea haurrentzat eta beste batzuk txakurrentzat.
- Faltan bota dudana kanpoan jolastea izan da eta eskulanak bakarrik egitea.
- Ez, Tolosa oso ondo dago niretzat.
- Hain beste azalpen ez egitea eta jolas gehiago egitea gustatuko litzaidake.
- Bai, jolas gehiago egitea.

- Jolas gehiago egitea faltan botatzen dut.
- Bai, beste jolas batzuk egitea.
- Bai, janaria.
- Elkartasuna familien artean.
- Ez.
- Ez, ez dakit.
- Ez. Kanpoan jolastea bota dut faltan.
- Eguraldia aldatuko nuke. Baita, eskulanak egitea.
- Nik kanpoan jolas gehiago egitea bota dut faltan.
- Maketa gehiago egitea bota dut faltan.
- Egingo nukeena animaliez hitzegitea da.
- Tirolina gehiago Tolosan zehar.
- Ez.
- Ez dut ezer faltan bota.
- Zirkuitoak, jolasak eta dibertsioa.
- Dena ondo.



#### 4. Eskoletatik jaso diren proposamenak

Haurren kontsieluko partaide batzuk beraien geletan jasotako honako proposamen hauek ekarri dituzte:

- Usabaleko autobus geltokian dauden lau zakarrontzietatik bi horiak dira. Hau da, marroi bat falta da organikoarentzat.
- Larramendiko garaje ondoko poste bat bere lekutik kanpo dago eta utzitako zuloa arriskutsu dago.
- Larramendiko baldosa batzuk puskatuta daude.
- Santa Lutzia 20tik jaisteko euria ari duenean, aldapa bustita dagoenean, oso gune irristakorra bilakatzen da.
- Iurreko plazan euria ari duenean oso putzu handiak egiten dira.
- Enperadore kalean espaloia puskatuta dago.
- Belate kalean, fruta denda aurreko zebrabidea zeharkatzeko ez da errepidea ongi ikusten zaborrontziak direla eta.
- Larramendiko obra inguruan dagoen iturria hondatuta dago.
- Ibarra badago kotxeak gelditzen ez diren zebrabide bat.
- Suhiltzaile inguruan, Usabal bidean funtzionatzen ez duen semaforo bat dago.
- Santa Klaran, Asuntzionera doan aldapan, kotxean bertan dauden tailerretan aparkatu egiten dute, eta oso arriskutsua da zirkulatzen ari diren autoentzat.
- Tolosa erdiguneko tren geltokian igogailurik ez dago, eta adineko jendea eta haur txikiak kotxean igo edo jaitsi behar dutenean zailtasun handiekin ibiltzen dira.
- San Esteban goiko aldean dauden baserrietan, ez dago kalerako argirik (farolak falta dira) eta iluntzean bueltatzen garenean ez dugu ezer ikusten. Arriskutsua da.
- Txiki parka.
- Zoo txiki bat.
- Skatepark 15 urtetik behera.
- Liburutegia handiagoa egin.
- Autobusak ez sartu bide gorrian.
- Alondegian zakarrontzi eta iturri gehiago mesedez.
- Samaniegorako bidean euria egiten duenean entsarkatu egiten dituzu galtzak eta zapatilak.





## 5. Materiala




- Aurkezpena powerpoint formatuan.
- Portatila eta HDMI kablea.
- Musika.
- Bozgoragailuak.
- Hezitzaileen identifikazio txapak.
- Margoak.
- Arkatzak.
- Zeloak.
- Guraizeak.
- Kolak.
- Zorrozkiloak.
- Zakarrontziak.
- Muralean itsasteko marrazkiak.
- 3 muralak.
- Balorazioko fitxak.
- Tolosako landa koadernoak.








## 6. Eranskinak

- **Naturguneak osatzeko eskainiriko baliabideak**

28 eredu eskaini zitzaizkien neska-mutilei naturguneak aproposen uste zuten bezala osatu ahal izateko, jarraian 28 eredu horien hainbat adibide ikus daitezke:















- **Urtarrilaren 23ko aurkezpena**

# TOLOSAKO HAURREN HIRIA

2019-2020 ikasturtea

## HAURREN KONTSEILUA

Laugarren saioa: 2020ko Urtarrilak 23

### Aurkibidea

9:30-10:30 (60 minutu)

- **Abiapuntua:** aurreko saioaren emaitzak.
- **Gaurko gaia:** Naturguneak.

10:30-11:30 (60 minutu)


- **Atsedena** eta hamaiketakoa.
- **Murala.**

11:30-12:00 (30 minutu)

- **Haurren balorazioa.**
- **Hurrengo pausuak azaldu.**



**Abiapuntua:**  
Aurreko saioaren emaitzak



**Abiapuntua:**  
*Aurreko saioaren emaitzak*




**Abiapuntua:**  
*Aurreko saioaren emaitzak*



## **Gaurko gaia:** **Naturguneak**







## Tolosa berdez

“Tolosa berdez” liburuxkan, tolosako naturgune eta natur parkeen kokapena egiten da, herritarrek horiek ezagutzeko aukera izan dezaten.

### HAINBAT NATURGUNE DITUGU TOLOSAN!



## ZUMARDIAUNDIA

Naturguneak

Tolosako parke zaharrenetako eta handienetako bat



## ZABALARRETA

Naturguneak

Espezie aniztasun handia duen naturgunea da Zabalarreta, tamaina handiko zuhaitzez eta belardiz osatuta.

Bertan Tolosako zuhaitzik zaharrena dago, 165 urte dituena!



## GERNIKAKO ARBOLA LORATEGIAK

Naturguneak

Bertan Ginkgo biloba zuhaitz ikusgarria dago, baita Gernikako arbola den haritzaren kimua ere



## ELOSEGI PARKEA

Naturguneak



Elosegi markesaren jauregiko lorategiaren zati bat da. Basotxo bat da, zedroz, zipresez, haritzez, pagoz eta ezkiz osatua. Muxar, koartzta, saguzar, anfibio eta intsektuen babesleku da





## ELOSEGI PARKEA

Naturguneak

Elosegi parkea ez da bisita librekoa, natur eskola gisa kontserbatu nahi da. Putzu bat, bideak, biribilguneak, minareteak eta haizulo bat daude bertan



## ARKAUTE PARKEA

Naturguneak

Antzinako zuhaitz  
ikaragarriez gain, landaketa  
berriko zuhaitzak ere  
badaude



## NORVEGIARREN LORATEGIA

Naturguneak

Tolosan bizitako norvegiar baten fabrika egondako tokian dago gaur egun parkea. Norvegiarren omenez, bi eski daude, baita Atlaseko bi zedro, zenbait sahats negarti eta magnolia ere



## URKIZU



Landa auzo bat da.  
Baserri, baratza, belaze  
eta basoak daude  
inguruan



## BEDAIO

Landa-auzo bat da.  
Mendi-ibilaldiak egiteko aukera handia  
Gipuzkoako baserririk handiena ere, Bedaion dago.



## Naturguneen abantailak hezkuntzan

### INGURUMENEAN

Ekosistemen babesa  
Bioaniztasuna zaindu  
CO2 xurgapena

### HERRIARENGAN

Arnaguneak dira  
Ondare naturala  
mantendu  
Berdeguneak  
mantendu


### HAURRENGAN

Jolastoki dira  
Naturaz gozatzeko  
aukera  
Lagunekin ikasteko  
aukera  
Gune "seguruak"  
dira



## Tolosako landa koaderno

Liburuxka honetan, Tolosa inguruko bizidunen inguruko argibideak ematen dira. Zeintzuk aurki daitezke, zein berezitasun dituzten etab.




## Datozen saioak



- Gurasoekin saioa – Martxoak 14
- Mintxa txokoa prestatzeko saioa – Apirilak 24
- Mintxa txokoa – Maiatzak 16

**Eskerrik asko zuen parte hartzearengatik!**



**Hurrengo saioa:**

**Martxoak 14, larunbata  
SAIOA SENIDEEKIN**

## 4.2. Ikasturte amaierako aurkezpena familientzat

# TOLOSAKO HAURREN HIRIA

**Haurren Kontseiluaren parte diren senideei zuzendutako aurkezpena, 2020ko martxoa.**

Presentación dirigida da las familias de l@s niñ@s participantes del Consejo Escolar, marzo de 2020.



<https://youtu.be/sU3JDtH4NJk>

## 4.3. Mintza txokoa



<https://youtu.be/3QzFDcKveiw>

- **I eranskina: Haurren Kontseiluaren saioak**
  - Lehen saioa
    - Aurkezpena
    - Txostena
    - Tolosako mapa
  - Bigarren saioa
    - Aurkezpena
    - Txostena
    - Eskubideen adierazpena
    - Eskubideen hitzarmena
  - Hirugarren saioa
    - Aurkezpena
    - Txostena
    - Jolastoki inklusiboak
  - Laugarren saioa
    - Aurkezpena
    - Txostena
    - Haurrentzat balorazio orria
- **II eranskina: Familiei zuzendutako baliabideak**
  - Ikasturte hasierako aurkezpena
    - Aurkezpena
    - Laburpen testua
  - Ikasturte hasierako gutunak
    - Gutuna familientzat
    - Gogorarazpen gutuna
- **III eranskina: Komunikazioa**
  - Barne komunikazioa
    - Udalarekin lehen bilera
    - Egutegia
    - Kontseiuaren osaketa
    - Ikasgelan jartzeko kartela
    - Gurasoen baimenak
  - Kanpo komunikazioa
    - Lehen prentsa oharra
    - Bigarren prentsa oharra
- **IV eranskina: COVID19ak eragindako egokitzapena**
  - COVID19ak eragindako egokitzapena
  - Harremanetarako gmail kontua
  - Mintza Txokorako bideoaren gidoia